


Ama izateak sortzen dituen buruhausteak agertzen dizkigu Hikak euskaraz eta gaztelera estreinatu duen "Ai, ama!" ikuskizunean. Arantxa Iturberen izen bereko liburuan oinarritutako lana poesiaz zipriztindutako tragikomedia da.

## ERDITUTA ERE, BETEA IZATEN JARRAITU NAHI



EUI GOROSTEGI

Hika taldeak "Ai, ama!" ikuskizunean bere gogo guztiak jarri ditu, nolabait aurreko urtean bizitako krisia gainditu nahian: "Taldeak ekoitzi zuen aurreko lana", dio Intxaurragak "Oihanaren Legea" ikuskizunari buruz, "eta ez genuen gure sentitu. Antzerki-entresa bat aurrera eramateak dakartzan kostuak ikusita, salgarria zen zerbait egitea erabaki genuen. Baina ez zen ondo atera eta behar baino emanaldi gutxiago egin genituen. Oraingoan gure gustuko zerbait egin nahi izan dugu".

Arantxa Iturbek, besteak beste, Euskadi Irratirako irrati-nobelak idatzi baditu ere, lehen aldiz ezagutu du berak paperean azaldutakoa iruditan ikusteko esperientzia: "Niretzat erresaka moduko bat izan da estreinaldia. Duela urte batzuk idatzitako testua da, eta beraz, berriro ere jendearen ahotan gotea arraroa egiten zait", dio.

### ■ Pilar Rodriguez

#### "Muturreko pertsonaia bat egingo nuke gustura"

Artila denda batean egiten zuen lan Pilar Rodriguezek antzerkia ikastea erabaki aurretik. Eusko Jaurlaritzak antolatutako lau hileko ikastaro bat eta ondoren Antzertin egin zituen antzerki ikasketak.

#### ■ Bizi al daiteke antzerkiaz?

Konbinatu egin behar izaten dut antzerkia telebistarekin, zinemarekin, bikoizketekin edo irrati noblekin. Maiz gertatzen da zortzi hilabete geldirik egon ondoren bat-batean bi edo hiru eskaintza batera jasotzea.

#### ■ Ez da amarena egiten duzun lehen aldia...

Nire adineko aktore gutxi dagoelako agian. Gainera askotan gertatu izan zait zaharragoarena egin behar izatea.

#### ■ Zein pertsonaia egingo zenuke?

Badauket gogoia pertsonaia muturreko bat egiteko, eroa agian. Pertsonaia limite horietako bat.

#### ■ Antzerki enpresen bilakaera akto-reentzat onuragarria izan al da?

Bai. Funtzio gehiago egiten dira eta jendea gehiago joaten da ikuskizunetara. Hasi ginenean denetik egiten genuen: kamioia kargatu, eszenategia muntatu... eta askotan funtzioa egitera-ko nekatuta geunden jada ●



EUI GOROSTEGI

**ZERGATIK AMA IZAN?** Taula gainean hiru emakume: Ainhoa Aierbe, Pilar Rodriguez eta Miren Gojenola. Edo Marta, Ixabel eta Lutxi. Hiru aktoreek antzezpandantz bat eskaintzen digute oholza gainean. Bakoitzak bere desirak, beldurrak, erruak eta damuak azaltzen dizkiete ikusleei, bakoitzak bere ikuspegiak. Izan ere, amatasuna sentitzeko hamaika modu dago, ez sentitzeko dauden bezainbeste. Baina Hikak aurkeztutako hiru emakumeek haurra edukitzea erabaki dute. Hori bai, oso arrazoi ezberdinengatik. "Hiru urtetan saiatu ondoren gelditu da haurdun nire pertsonaia", dio Miren Gojenolak. Ainhoa Aierbek jokatzan duen pertsonaia, aldiz, hasieran behintzat ez du haurrik izan nahi: "Gero, ordea, berandu egingo zaiolako edo, izatea erabakitzen du, baina kriterio nabarmenik gabe. Galdera asko egiten dizkio bere buruari, eta haurdunaldian ere oso gaizki pasatzen du. Ez du bere bizimodu berria onartu nahi". Pilar Rodriguezen pertsonaia beste belaunaldiko ama bat da eta haurrak eduki nahi zituen pentsatu gabe. Orain, ordea, bere adineko emakume askok lez, drama personal bat bizi du: "Bizitza osoa eskaini dio familiari, eta orain, alde egin dutela-eta, ez daki zer egin. Bakarrik sentitzen da".

Emakumei buruzko antzezlanaren arren, taldekoen hitzetan "Ai, ama!" ez da ikuskizun feministar bat". Egoera ezberdinak bizi dituzten arren, antzezlano hiru protagonistak ama gehientsuenek pasa behar izaten dituzten gorabeherak biziki dituzte taula gainean: haurdun geldituta euren gorputza nola loditzen den ikusiko dute, erditzearen

### ■ A ze marketinga!

Idatzitako liburuari aipamena eginez bezala erantzun zidan Arantxa Iturbek Hikaren lanaren berri galdegin nionean- "Ai, ama, a ze marketinga!". Izan ere, Hika taldeak Iturberen lana eszenaratuko zuela jakinarazi zuenetik Euskal Herriko komunikabide ia guztiak eman dute honen berri. Taldekoak ere txundituta utzi ditu hedabideen babesak: "Medioetan ez dugu sekula horrelako harrearik eduki", dio ikuskizunaren zuzendariak. Orain arteko emanaldietan lepo bete dira, gainera, antzokiak.

Idazle izateaz gain kazetari ere badenez antzezlano medioetan izan duen halako harrearen zergatiak galdetu nion Iturberi. "Batetik, ez dira antzerki estreinaldi asko egon. Bestalde, testua antzerkira egokitzeko emandako beka dela medio egitas-moa oihartzuna izaten hasi zen". Ikuskizunaren gaia unibertsal izateak eta aktoreak jendearentzat ezagunak izateak ere eragina izan zezaketa gehitu zuen ●

mementoak beldurra eragingo die, haurra jaiota gauze lo egiteari utzi beharko diote, zein koloreko kaka egiten duen begiratuko dute, parkean beste amekin hizketaldi aspergarriak izango dituzte... Izan ere, ama izateak ez du zerikusi handirik iragarkietan azaltzen diguten mundu arrosarekin.

Hikaren azken proposamenak fartsatik ihes egin nahi du: "Horrek mezuari, hau da, ama izateaz gain emakumeak beste gauza asko bagara adierazten duen mezuari, indarra kendu diezaiokelakoan". Amatasunak alde komiko edo samurrak baditu ere, haren gogortasunaz ere mintzatu nahi baitzuen taldeak. Lanaren zuzendaria aitortzen du, gainera, Iturberen testua antzezlano baino gogorragoa dela.

Paperetik taularako jauzi horretan, hortaz, mezua mantenduz irudia leuntzea erabaki dute, Intxaurragaren hitzetan: "Negoziatu beharra izan genuen, eta salmentak hobeto joateko estetika samurtzea erabaki genuen. Batzuei asko gustatu zaien arren, badira ñoñoegia gelditu dela diotenak".

### EMAKUMEAK ZURI-ZURI.

Zuria da Hikaren lan berriaren eszenategia, zuriak jantziak eta baita haurren azala ere. Zuria askotan umorea. Batzuetan beltza ere bai. Kulunka bat besterik ez da ageri taula gainean, eta hortaz, musika eta argiaren laguntza ikusle egoera ezberdinean kokatzen da. Argiztapenak, bereziki, protagonismo handia du, hein handi batean antzezlanoaren eritimoa markatzen baitu. Era berean, aktorek mikrofonoak daramatzate soinean. Soinu efektu askorekin jokatzeo aukera ematen die honek.

"Ai, ama!" izeneko haurraren jaiotza gogoz bizitu du Hikak. Orain, nola hazten den ikusi behar. Horretarako aukera izango da azaroaren 15ean Oñatin eta 30ean Sopelan. Martxorako ere hainbat lekutan emankizunak aurreikusita dauzkate ●

◆ AINARA GURRUTXAGA